



KIROLDEGIKO ERABILPEN ARAUDIA DOLORES IBARRURI BHIrako

- Araudi honen xedea Dolores Ibarri ikastetxeak kirol instalazioen erabilpena erregulatzea da, Gorputz eta Kirol ekintzak sustatzeko goi mailako ziklo formatiboetako programazietan adierazitako edukinak era egokian irakasteko eran.
- Ikasleoa zein irakasleoa **ikastetxe-erabiltzaile libre** izango dira, eta udalak eta Institutuaren arteko hitzarmenak adierazitako instalazioak erabili eta adierazitako egunetan eta orduetan sartu ahal izango dira. Saio bakoitzaren hasteko eta amaitzeko ordutegiak errespetatuko dira.
- Instalazioetara sartzeko karneta bana emango da, erabilera azken egunean bueltan emango dena . Ezingo da kiroldegira sartu karnetarik gabe. Karneta galduz, hondatuz edo lapurtua izanez gero 2 euro ordainduko da beste bat izateko.
- Ikasleoa soilik arduraduna den irakasle baten laguntzaz sartuko da kirol instalazioetara. Irakasle horren ardura da espazioak eta materialak behar bezalako erabilera izatea eta beste irakasle batekin utziko ditu ikasleak.
- Dolores Ibarri BHIko kide batek instalazioetan edo materialetan sorturiko kalterik edo beste jazoerarik izan ezgero gertakari-parte bat osatuko da zikloko koordinadoreari emango zaiona.
- Kirol praktika material eta janzkera egokiaz burutuko da. Zoru bakoitzaren ezaugarrietara egokitutako **oinetakoak** erabiliko dira, bereziki egurrezko azaletan, markak uzten dituztenak debekatuta daudelarik. Ezingo da jantzi kalean erabiltako oinetakorik, batez ere neguan. Kanpoko instalazioetan lokatza metatzen bada oinetakoen garbiketa kanpoan egingo da.
- Dolores Ibarri BHIri mailegatutako kaio eta biltegieta gordeko da jarduerarako beharrezko **kirol materiala**. Behar diren giltzak kiroldegiaren harreran izango dira. Gainera, instalazio bakoitzaren ekipamendu orokorrak ere (saskiak, zutoinak, atak..ea.) eta beste material laguntzaileak, eskaria egin ondoren, erabilgarri izango dira.



- Erabiltzaileak arropaz aldatzeko eta garbiketarako behar den baino denbora gehiago ez dira egongo **aldageletan**. Bainu-eremuan oinutsik ez ibiltzea eta txankletak erabiltzea gomendatzen da. Amaitutakoan aldagela egoera egokian utziko da.
- **Kutxatilategietako** erabilpena egunekoa soilik izango da; ikas-eguna amaitzerakoan hutsik geratuko dira. Giltzarrapo kutxatilategietarako nor berea usatuko du. Gomendagarria da balio handiko objeturik ez gordetzea, gordailu-hitzarmemik ez dagoenez Kiroldegiak objetu horien zaitzan erantzukizunik ez lukelako izango.
- Erabat debekatuta dago kirol- instalakuntzetan **jatea**, ezta aldageletan, harmailetan, ikasgeletan, pasalekuetan ere. Horretarako kafetegia da eremu aproposa. Erretzeko kalera irtengo da jantzita eta oinatakodun.
- **Igeritokietara** ezingo da sartu kaleko oinetakoaz.
 - . Urtetan sartzeko dutzatzea beharrezkoa da..
 - . Bainu-txanoa erabiliko da kasu guztietan.
 - . Txankletak eta ur-betaurrekoen erabilpena gomendatzen da..
 - . Ez da onartzen: korrika egitea, jauzi egitea, beste bati bultzatea edo beste erabiltzaileen zihurtasunaren kontrako besterik; txistua bota, txiza egin eta uraren kalitaearen kontrako beste zeozer; baloiak, koltxonetak edo urpekaritzarko beturrekoak erabiltzea e.a; ezta kortxeretara igo edo eskegitzea.
- **Spining gelan** berariazko oinetakoak erabiliko dira, izerdia garbituko da txirrindula erabili eta gero; gela egoera egokian utziko da.
- **Fitness gelan** higiene arrazoiengatik ohiala erabiliko da, talde murriztuak osatuz edo bi irakasle arduradunekin.
- Erabiltzaile gisa ondorengo **eskubideak** izango dituzte:
 - . Beharrezko erosotasun eta zihurtasunez instalazioak erabiltzea. Komunak eta aldagelak gorputz higienea sustatzeko beharrezkoak diren baldintzetan izango dira.
- Halaber, ondorengo **beharrak**:
 - . Instalazio eta komunak era egokian erabiltzea, eremu bakoitzaren berariazko erabilpen arauak errespetatuz.
 - . Instalazioa garbi izaten laguntzea, paperontziak eta edukiontzi higienikoak erabiliaz.



- . Altzariak, kirol materiala, bankuak, lorategiak, zuhaitzak e.a. errespeatzea eta zaintzea.
 - . Beste erabiltzailei sor zaien begirunea adieraztea, elkarbizitzarako behar den jokabidea azalduaz.
 - . Kiroldegiko zuzendaritzak jarritako arauak errespetatzea eta beste langileen iradokizunei arreta ematea.
 - . Irakasle zein ikaskideenganako begirune jarrera iraunkorra adierazi. Gorputz higiene neurri egokiak azaldu eta eremu bakoitzari egokitutako arropa eta oinetakoak erabili.
 - . Ez sartzea pista edo geletara irakaslea ez dagoen arte, aldagelatik edo berez sartzeko erabilgarri dauden ermuetatik sartzea.
 - . Irakaslearen azalpenenak aditasunez entzun eta baliatutako materiala gordetzen laguntzea.
- Arautegi honen ez betetzea, edota besta jokabide ezegokiak izateak instalazioetatik kanporatua izatea edo **zigorra** jasotzea suposatu ahal du, banaka edo talde osoaren kontra.